



REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DE LOS LOCALES MUNICIPALES DE ZEBERIO.

Artículo 1. Objeto. Es objeto del presente reglamento la regulación interna y funcionamiento de los locales municipales, para uso y disfrute de los vecinos de Zeberio, a fin de satisfacer las necesidades que existen en el municipio.

Artículo 2. Beneficiarios. Podrán hacer uso de los locales municipales, para la realización de actividades de interés general, cualquier institución, asociación, empresa, entidad o persona física que cumpla con los requisitos establecidos en el presente Reglamento y no se encuentren incurso en causa legal alguna o deban cumplir una sanción que les imposibilite e impida el acceso a los locales. Para ello habrá que cumplimentarse el modelo normalizado de solicitud que, al efecto, le será facilitado.

El/la Presidente/a de la asociación, Institución o Entidad en cuyo nombre se realiza la solicitud, su representante legal o la propia persona física solicitante en su caso, serán responsables frente al Ayuntamiento de Zeberio de las obligaciones que se deriven de la autorización de uso acordada.

Todos los usuarios de los locales municipales, deberán utilizarlos para el fin que están destinados, cuidando la buena conservación de los elementos y guardando el cuidado debido en la conservación de los elementos e instalaciones de todo tipo que disponen los locales.

No se podrán introducir en los locales municipales comidas o bebidas, estando totalmente prohibido fumar.

Artículo 3. Reserva de los locales. Las peticiones de reserva del local se realizarán con una antelación mínima de una semana a la fecha deseada, presentándose mediante instancia oficial por escrito en el Ayuntamiento de Zeberio y dirigidas al Señor Alcalde-Presidente. En ella habrá de señalarse el objeto del uso de la sala, horario de inicio y finalización de la actividad, así como los datos identificativos de la persona responsable de los actos.

Siempre deberá figurar como responsable una persona mayor de edad, aún cuando actuase en nombre y representación de entidades con personalidad jurídica propia.

En caso de que haya más de una solicitud para el mismo día y en horario coincidente, tendrán preferencia

- Las solicitudes de instituciones públicas o privadas, asociaciones, empresas, entidad o persona física del municipio.
- Las que tengan por objeto el desarrollo de actividades de naturaleza cultural.

En todo caso y en caso de coincidir varias solicitudes, se resolverán según el orden de entrada en el Registro del Ayuntamiento.

Artículo 4. Biblioteca. 1. Disposiciones generales. Los fondos de la Biblioteca de Zeberio son de libre acceso, por lo que el usuario accede a ellos sin necesidad de solicitarlos.



El personal del centro está a disposición de los usuarios para facilitar el uso de la colección.

Todos los servicios de la Biblioteca de Zeberio son gratuitos.

2. Servicio de préstamo. Para poder disfrutar del servicio de préstamo, deberá cumplirse la siguiente normativa:

Es preciso disponer del carnet de socio, facilitado gratuitamente por la Biblioteca.

En caso de deterioro o pérdida del material prestado, la Biblioteca exigirá su reposición por uno nuevo.

La sección de referencia (enciclopedias, diccionarios, etc.) quedará fuera del servicio de préstamo y solo podrán ser utilizados en el recinto de la Biblioteca como material de consulta.

Finalizada la consulta de las obras por parte del usuario, los ejemplares utilizados deberán ser devueltos al Bibliotecario.

3. Orden y limpieza. Con el fin de mantener la limpieza, higiene y orden de la Biblioteca queda prohibido:

- Comer, fumar, beber, hablar o gritar dentro del recinto.
- Alterar la posición de los muebles.
- Utilizar el mobiliario indebidamente (colocar los pies en las mesas, escribir o pintar en las sillas, mesas, estanterías, pegar chicles, colocar carpetas u otros materiales indebidamente).
- Reservar asientos a otros compañeros o amigos.
- Demostrar un comportamiento indebido.
- Los usuarios deberán seguir las indicaciones del personal de la biblioteca que cuidará el respeto de las normas, pudiendo expulsar a quien no las cumpliera.

Artículo 5. Sala de Usos Múltiples. La Sala de Usos Múltiples está preparada para su utilización como Sala de Exposiciones, Conferencias y Proyección de películas.

1. Objeto: Este recinto tiene como fin:

Facilitar un espacio, adecuado para que cualquier institución pública o privada, asociación, empresa entidad o persona física puedan realizar en ella exposiciones de objetos artísticos, reuniones, conferencias o actos similares.

2. Condiciones de uso: Está permitido:

Instalar exposiciones y muestras así como realizar conferencias promovidas por cualquier institución pública o privada, asociación, empresa entidad o persona física residente o no residente en el municipio de Zeberio.

Está Prohibido:

Exposiciones y muestras que causen perjuicio al edificio o de alguna manera, a sus elementos, tanto en el montaje como durante la exposición.



4. El Ayuntamiento no se responsabiliza de los daños y perjuicios que pueda sufrir la obra objeto de la exposición, con motivo del transporte, instalación y exposición, incluso en los casos de caso fortuito.

5. El organizador de la exposición será responsable de que la persona que se encarga de cuidar la obra esté durante el horario de apertura del local.

Asimismo, el responsable de la actividad será la única persona que pueda manejar los distintos aparatos (video, dvd, proyector, micrófonos, etc.) e ponen a su disposición para el desarrollo de la actividad, estando prohibido que cualquier otro participante pueda manejarlos.

6. La persona que haya realizado la solicitud será la responsable de la apertura y cierre del local, así como de la recogida y entrega de llaves una vez finalizada la actividad objeto de la solicitud.

7. Las exposiciones no podrán tener una duración superior a 15 días, excepto las organizadas por el propio Ayuntamiento de Zeberio, disponiendo de un día antes y uno después para proceder respectivamente al montaje y desmontaje de las obras.

Artículo 6. Ludoteca. 1. Esté servicio está dirigido principalmente a la población del municipio en edades comprendidas entre 4 y 11 años, no obstante se podrán desarrollar otro tipo de actividades tendentes a toda clase de público.

Su horario de funcionamiento será el que establezca el Ayuntamiento de Zeberio.

2. Los usuarios dispondrán del material oportuno para el desarrollo de las actividades.

3. No podrá sacarse del local los juegos y material disponible, salvo el los casos en que lo autorice expresamente el responsable, quien de igual manera establecerá las condiciones para el retorno del material en perfecto estado bajo su responsabilidad.

4. Los padres, tutores o responsables de los menores que se hallen en la ludoteca municipal, habrán de avisar al personal del recinto cuando se vayan a llevar a los niños, además de estar localizables durante el periodo de tiempo en que dejan a sus hijos en esta instalación municipal.

Artículo 7. Régimen sancionador. 1. El ejercicio de la potestad sancionadora se ajustará a los principios contenidos en la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común, la Ley de 20 de febrero de 1998 de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco y por el R.D. 1398/1993, de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento para el ejercicio de la Potestad Sancionadora.

2. Los hechos y actuaciones que realicen los usuarios e impliquen una actuación contraria a los dispuesto en este Reglamento, serán calificados como infracción de la normativa a la que se impondrá la sanción que corresponde.



3. Las infracciones se dividen en graves y leves.

3.1. Se consideran infracciones graves las siguientes:

- a)** Sustraer intencionadamente o causar daños a instalaciones, equipos. Materiales u objetos de los usuarios como de los demás intervinientes.
- b)** Provocar riñas, agresiones o tumultos en el recinto.
- c)** Agredir física o verbalmente a los responsables de las actividades.
- d)** No atender reiteradamente a las indicaciones que los responsables establezcan para el buen funcionamiento de los locales y servicios.
- e)** Haber sido sancionado en más de dos ocasiones por la misma infracción leve en el plazo de seis meses.

3.2. Se consideran infracciones leves las siguientes:

- a)** Introducir alimentos y bebidas en el interior de los locales.
- b)** Introducir animales u objetos no permitidos en el interior de los locales.
- c)** El incumplimiento de forma reiterada de las normas específicas de uso de cada local.
- d)** La entrada en las áreas destinadas exclusivamente al otro sexo.
- e)** Alterar el orden y buen funcionamiento de las instalaciones o faltando al respeto de los demás usuarios.
- f)** Practicar actividades o juegos en zonas no destinadas a dicho fin.
- g)** Producir daños o maltratar los objetos utilizados para las actividades y las instalaciones puestas a disposición de los usuarios.
- h)** No guardar y no limpiar reiteradamente los objetos utilizados para las actividades.
- i)** No respetar las demás prohibiciones, limitaciones u obligaciones establecidas en esta Normativa.
- j)** No devolver los libros a la biblioteca en el plazo máximo establecido.
- k)** La pérdida o deterioro de los libros.
- l)** La ocupación de los espacios comunes (pórtico de entrada, hall y pasillos).

4. Como consecuencia de la comisión de infracciones graves podrán imponerse las siguientes sanciones:

- a)** Expulsión temporal por un periodo máximo de seis meses.
- b)** La comisión de dos infracciones leves en el plazo de tres meses dará lugar a la imposición de una sanción por infracción grave.
- c)** Las infracciones graves serán sancionadas como una multa de hasta un máximo de 1.200 euros.
- d)** Las infracciones leves serán sancionadas con una multa de hasta un máximo de 600 euros.
- e)** La imposición de sanciones se establecen sin perjuicio de abonar los daños ocasionados el patrimonio municipal.

5. Los órganos competentes para la resolución del procedimiento lo serán también para su iniciación conforme a la normativa vigente.

6. La imposición de las sanciones previstas en los artículos precedentes corresponderá:



- Al Alcalde en caso de infracciones leves.
- Al Pleno del Ayuntamiento en las infracciones graves.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente reglamento entrará en vigor a partir de la publicación del texto íntegro en el Boletín Oficial de Bizkaia, de conformidad con lo dispuesto en la legislación vigente en materia de Régimen Local y regirá hasta que se acuerde su modificación o derogación expresa.

En Zeberio a 28 de diciembre de 2004. **El Alcalde, Humberto Perea Añibarro.**

DILIGENCIA.- Para hacer constar que el presente Pliego ha sido aprobado por el Pleno el día 29 de diciembre de 2004.

La Secretaria
M^a Teresa Camarero Sánchez

**ZEBERIOKO UDAL LOKALEN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIA.**

1. artikulua. Xedea. Araudi honen xedea udal lokalen barne araudia eta funtzionamendua da, Zeberioko herritarren erabilerarako, udalerrian dauden beharrianak asetzeko.

2. artikulua. Onuradunak. Interes orokorreko jarduerak egiteko, Araudi honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituen edozein instituzio, elkarte, enpresa, erakunde edo pertsona fisikok erabili ahal izango ditu udal lokalak, ez badago inongo legezko auzitan sartuta edo lokaletara sartzea debekatzen edo galarazten dion zigorrik bete behar ez badu. Horretarako, emango zaion eskaera eredu normalizatua bete beharko da.

Eskaera egiten duen elkarte, instituzio edo erakundeko presidentea, legezko ordezkaria edo eskatzailea den pertsona fisikoa bera izango dira hitzartutako erabileraren baimenetik eratorritako obligazioen erantzuleak Zeberioko Udalaren aurrean.

Udal lokalen erabiltzaileek lokal horien xedearen arabera erabili beharko dituzte, elementuak ondo zainduz eta lokaletako elementu eta instalazio guztiak behar den bezala mantenduz.

Udal lokaletan ezin izango da janari edo edaririk sartu, eta guztiz debekatuta dago bertan erretzea.

3. artikulua. Lokalen erreserba. Lokala erreserbatzeko eskaerak nahi den eguna baino astebete lehenago egin beharko dira, gutxienez. Horretarako, instantzia ofiziala aurkeztu beharko da Zeberioko Udalean, idatziz eta alkate-presidente jaunari zuzenduta. Instantzia horretan, aretoaren erabilera, jardueraren hasiera eta amaiera ordua eta ekitaldiaren arduradunaren identifikazio datuak adierazi beharko dira.

Arduradun gisa, beti agertuko da adinez nagusia den norbait, izaera juridiko propioa duten erakundeen izenean eta ordezkari legez jokatzeko badu ere.

Egun eta ordutegi bererako eskaera bat baino gehiago badago, hauek izango dute lehentasuna:

- Udalerriko instituzio publiko edo pribatuen, elkarteen, enpresen, erakundeen edo pertsona fisikoen eskaerak.
- Jarduera kulturalaren garapena helburu dutenak.

Edozelan ere, zenbait eskaera egongo balira, Udaleko Erroldan izan duten sarrera ordenaren arabera ebatziko dira.

4. artikulua. Liburutegia. 1. Xedapen orokorrak. Zeberioko Liburutegiko fondoak sarrera librekoak dira. Beraz, erabiltzailea eskatu barik sartu daiteke bertan.

Zentroko langileak erabiltzaileen esanetara daude, bildumaren erabilera eskura jartzeko.

Zeberioko Liburutegiko zerbitzu guztiak doakoak dira.



2. Mailegu zerbitzua. Mailegu zerbitzua erabili ahal izateko, araudi hau bete beharko da:

Beharrezkoa da bazkide txartela izatea. Liburutegian ematen da, doan.

Mailegatutako materiala hondatu edo galduz gero, Liburutegiak berria jartzeko eskatuko du.

Erreferentzien atala (entziklopediak, hiztegiak, eta abar) mailegu zerbitzutik kanpo geratuko da, eta Liburutegian baino ezin izango da erabili material hori, kontsultarako.

Erabiltzaileak liburu horietan kontsulta egin ostean, liburuzainari itzuli beharko zaizkio.

3. Ordena eta garbitasuna. Liburutegiko garbitasuna, higiena eta ordena mantentzeko, debekatuta dago:

- Barruan jan, erre, edan, hitz egin edo zarata egitea.
- Altzarien kokapena aldatzea.
- Altzariak behar ez den moduan erabiltzea (hankak mahaian jartzea, aulki, mahai eta apaletan idatzi edo marraztea, txikleak itsastea, karpetak edo beste material batzuk behar ez den moduan jartzea).
- Aulkiak erreserbatzea beste adiskide edo lagun batzuei.
- Behar ez bezalako jokaera izatea.
- Erabiltzaileek liburutegiko langileen aginduak bete beharko dituzte, eta arauak errespetatuko dituzte. Langileek liburutegitik kanpora bota dezakete arau hori betetzen ez duena.

5. artikulua. Erabilera Askotarako Aretoa. Erabilera Askotarako Aretoa erakusketa, hitzaldi eta pelikulen proiektzioarako areto gisa erabiltzeko dago prestatuta.

1. Xedea: Esparru honen helburua da:

- Instituzio publiko edo pribatuek, elkarteek, enpresek, erakundeek edo pertsona fisikoek objektu artistikoen erakusketak, batzarrak, hitzaldiak edo antzeko ekitaldiak egiteko espazio egoki bat ahalbidetzea.

2. Erabilerarako baldintzak: Egin daiteke:

Zeberioko udalerrian bizi den edo ez den edozein instituzio publiko edo pribatu, elkarte, enpresa, erakunde edo pertsona fisikok sustatutako erakusketak instalatu eta hitzaldiak antolatzea.

Ezin daiteke egin:

Eraikinari edo, moduren batean edo bestean, eraikineko elementuei kalteak eragin diezazkieketen erakusketak, bai muntatzean, desmuntatzean edo erakusketak dirauen bitartean.

4. Udala ez da arduratzen erakusketaren xede den obrak izan ditzakeen kalteez, berau garraiatu eta instalatzeko orduan zein erakusketak dirauen bitartean, kalte horiek ezustean gertatzen badira ere.



5. Obraren zaintzailea lokala irekitzeko orduan han egoteaz arduratuko den pertsona erakusketaren antolatzailea izango da.

Era berean, jardueraren arduraduna izango da jarduera garatzeko aparatuak (bideoa, DVDa, proiektorea, mikrofonoak...) erabiltzeko baimena izango duen bakarra, eta debekatuta egongo da beste edozein parte-hartzailek tresnok erabiltzea.

6. Eskaera egin duen pertsona arduratuko da lokala ireki eta ixteaz, bai eta giltzak jaso eta emateaz ere, eskaeraren xede den jarduera amaitzean.

7. Erakusketen iraupena ezin izango da izan 15 egun baino gehiagokoa, Zeberioko Udalak berak antolatutakoetan izan ezik. Obrak muntatu eta desmuntatzeko, egun bat egongo da aurretik eta beste bat ondoren.

6. artikulua.- Ludoteka. 1. Zerbitzu hau, batez ere, 4 eta 11 urte bitarteko udalerriko biztanleei dago zuzenduta, baina beste mota bateko jarduerak ere egin ahal izango dira, publiko mota guztiei begira.

Ordutegia Zeberioko Udalak ezarritakoa izango da.

2. Erabiltzaileek behar den materiala izango dute, jarduerak egin ahal izateko.

3. Lokaletik ezin izango dira bertako joko eta materialak atera, arduradunak hala baimentzen ez badu behintzat. Edozelan ere, arduradunak materiala egoera perfektuan itzultzeko baldintzak ezarriko ditu, bere erantzukizunpean.

4. Udal ludotekan dauden adin txikikoen guraso, tutore edo arduradunek, umeak handik eramango dituztenean, esparruko langileei abisatu beharko diete, eta aurkitzeko moduan egon beharko dira, seme-alabak udal instalazio honetan uzten dituztenean.

7. artikulua Zigor erregimena. 1. Zigortzeko eskumena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Eskumenari buruzko 1998ko otsailaren 20ko Legean eta Zigortzeko Eskumenerako Araudia onartzen duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan jasotako printzipioetara egokituko da.

2. Araudi horretan ezarritakoaren aurka doazen erabiltzaileen gertakari eta jokaerak araudiaren urraketatzat hartuko dira, eta dagokion zigorra ezarriko zaie.

3. Arau-hausteak larriak edo arinak izan daitezke.

3.1. Hauek hartuko dira arau-hauste larritzat:

a) Instalazioak edo ekipoak lapurtu edo kaltetzea. Gauza bera, erabiltzaileen zein gainontzeko esku-hartzaileen material edo tresnekin.

b) Liskarrak, erasoak edo zalapartak sortzea esparruan.

c) Fisikoki edo hitzez, eraso egitea jardueretako arduradunei.

d) Lokal eta zerbitzuek ondo funtzionatzeko, arduradunek behin eta berriro emandako aginduak ez betetzea.



- e) Arau-hauste arin beragatik eta sei hilabeteko epean, bi aldiz baino gehiagotan zigorra jaso izana.

3.2. Hauek hartuko dira arau-hauste arintzat:

- a) Janariak eta edariak sartzea lokaletan.
- b) Animaliak edo debekatutako tresnak sartzea lokaletan.
- c) Lokal bakoitzaren erabilerarako arauak behin eta berriro haustea.
- d) Norberarena ez den sexuari dagozkion esparruetan sartzea.
- e) Instalazioen ordena eta funtzionamendu ona hondatzea edo gainontzeko erabiltzaileekiko errespetua galtzea.
- f) Jarduerak edo jolasak egitea horretarako ez diren lekuetan.
- g) Erabiltzaileentzat jarritako jarduera eta instalazioetan kalteak eragitea edo txarto tratatzea.
- h) Behin eta berriro, jardueretarako erabilitako tresnak gorde eta garbitu barik ixtea.
- i) Araudi honetan ezarritako gainontzeko debeku, muga edo betebeharrak ez errespetatzea.
- j) Ezarritako gehienezko epean, liburuak liburutegira ez itzultzea.
- k) Liburuak galdu edo hondatzea.
- l) Espazio komunak (sarrerako ataria, halla eta korridoreak) okupatzea.

4. Arau-hauste larrien ondorioz, zigor hauek jarri ahal izango dira:

- a) Aldi baterako botatzea, gehienez sei hilabeterako.
- b) Hiru hilabeteko epean arau-hauste arin bi egiteak arau-hauste larri baten zigorra ekarriko du.
- c) Arau-hauste larriek, gehienez ere, 1.200 euroko zigorra izango dute.
- d) Arau-hauste arinek, gehienez ere, 600 euroko zigorra izango dute.
- e) Zigorak ezartzeak ez du esan nahi udal ondareari eragindako kalteak ez zaizkionik ordaindu behar.

5. Prozedura ebazteko eskumena duten organoek eskumena izango dute prozedurari hasiera emateko ere, indarrean dagoen araudiaren arabera.

6. Aurreko artikuluetan aurreikusitako zigorak ezartzeko eskumena honakoena izango da:

- Alkatearena, arau-hauste arinen kasuan.
- Udalbatzarena, arau-hauste larrien kasuan.

AZKEN XEDAPENA

Testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean sartuko da indarrean araudi hau, Toki Araubideko arloan indarrean dagoen legediak dioenaren arabera. Berau aldatu edo bertan behera uzteko erabakia hartzen denera arte egongo da indarrean.

Zeberion, 2004ko abenduaren 28an. **Humberto Perea Añibarro Alkatea.**

EGINBIDEA.- Udalbatzak Orri hau 2004ko abenduaren 29an onartu duela jakinarazteko.

Idazkaria
M^a Teresa Camarero Sánchez